



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

## **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren agerraldia Hezkuntza Batzordearen aurrean 09-06-10**

Batzorde honen aurrean agertu naiz, nire kabuz, datozen urteetan garatu asmo dudana Hezkuntza Proiektuaren berri emateko. Joan den maiatzaren 12an hartu nuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren kargua, eta sailburu gisa, orokorrean sustatu asmo dudana politika aurkeztu nahi dizuet gogoeta egin dezazuen.

Ez naiz hutsetik abiatzen. Ardura bera zuten beste pertsona batzuk, nik baino lehen, hasitako lana jarraitzen ari naiz; bai autogobernu demokratikoaren hogeita hamar urtetan zehar eta baita lehenago ere, autonomia aurreko garairaino atzera eginez gero. Nire errespetu osoa dute.

Eta lehenengo agerraldi honetan, emozioz gogoratzen ditut Fernando Buesa eta José Ramón Recalde; izan ere, nire aurretik jardun zuten erantzukizun honetan eta bizitzarekin edo osotasunarekin ordaindu zuten beren askatasun-grina eta euskal herritarren hezkuntza. Euren oroitzapena aldarrikatzen dut, eta euren legatuari leiala izan nahi dut.

Ez naiz berria Legebiltzar honetan. Urte luzeetan zehar, egoera politiko eta pertsonalen ondorioz, eztabaidatu ditugun eta sarritan partekatu ditugun hezkuntza-proposamenak trukatu ahal izan ditut, trukatu ahal izan ditugu. Eta, zuengana, jaun-andreongana, sailburu gisa zuzentzea berria izanda ere, elkar ezagutza hau baliagarria izatea espero dut, eta bereziki, euskal hezkuntza hobetzeko baliagarria izatea.

Oposizioaren lana ederki ezagutzen dut, izan ere, hamar urte baino gehiagotan horretan aritu naiz. Badakit oposizioak gatazkaren alderdi hutsean arakatzera behartzen duela; baina, era berean, badakit oposizioak elkarrizketarako ahalegina eta akordioen beharra aintzat hartzen dituela, ideologiaren arteko desberdintasunak



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

gaindituz. Nire asmoa tresna hau erabiltzea da. Nire aldetik, gaur bertan ematen diot hasiera elkarrizketari.

Hezkuntza Sistema ona dugu, elebiduna eta berrikuntza askoren jatorri izan dena (beti entzun didazue baieztapen hori), baina **beharrezkoa da hezkuntza sistemari itzultzea**. Beharrezkoa da bere inguruan pilatuz joan diren material kantitate handiengandik askatzea, bere autodefinizioa hobetu ahal izateko. Alegia, berdingabea, berezkoa, aurreiritzirik gabea (izaerari eta liskar txikiei dagozkienak edo alderdikoiegiak direnak) eta Euskadi egun den gizarte moderno eta irekiarekin bat egiten duen sistema gisa duen definizioa.

Gure hezkuntza sistemak partaide izatearen sentimendu eta emozio anitzak jaso behar ditu; euskal herritarren identitate anitzak jaso behar ditu. Era berean, eta lehenik eta behin, gizarte demokratiko aurreratu batek berezkoa duen zentzu kritikoa landu behar du; guztia izan behar da eztabaidagarria, ezer tabu izan gabe. **Eta landu behar dugun zentzu kritiko hori erabilgarria da, eta erabilgarria izango da, gure gizartearen izaera eta izan behar duenaren artean dagoen distantzia agerian uzteko. Soilik modu horretan emango dio gure hezkuntza sistemak balio erantsia zerbitzua eskaintzen dion gizarteari.**

### **Akordioen beharra**

Jean Cocteau-k zioenez, “muga non dagoen jakin behar da, iritsi ahal izateko”. Hasierako kokapen honetan, agerian utzi nahi dut, hain zuzen ere, beti pentsatu izan dudala, politikaren funtsa nahi diren eta posible diren helburuen arteko distantzia hautematean oinarritzen dela. Aukeraketa horretan hutsik ez egiteak berebiziko garrantzia du eta hori gerta ez dadin, jaun-andreon ikuspuntua kontuan izan nahi dut. Inork ez duela konponbide osoa pentsatzen duten horietakoa naiz. Hau alor guztietan betetzen da, eta are gehiago hezkuntzan, pieza asko dituen puzzlea baita. Nire gobernuak ez ditu pieza guztiak, jaun-andreok, baina guztion artean bildu ditzakegu.



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

Hezkuntza Batzorde honetan akordio asko erdiesteko gai izan gara eta gure desberdintasun ideologikoak gaindituz egin dugu. Zuei begiratu eta badakit ariketa hori ez zela alferrik izan. Akordioak egitea posible da, eta bereziki, onuragarriak baldin badira. Gizarte baten zibilizazio-mailari buruz asko esaten dute. Euskal Sozialistek bultzatu egin ditugu. 1982an, gobernutik kanpo, Euskararen Erabilera Normaltzeko Oinarrizko Legea babestuz, eta 1992an, gobernu barruan, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea eta Irakasleen Kidego Propioen Legea ahalbidetu zituen Eskola-Itunaren bidez, beste hainbat neurriren artean.

Akordio eta adostasun gunea indar politiko eta hezkuntza eragile guztiengana hedatzea nahi dugu. Horrela egin genuen lehen, eta horrela egingo dugu orain.

**Ituna bilatuko dugu Hezkuntza hobetzeko tresna eraginkorrena bezala.**

### **Hezkuntza Sailaren egoera**

Iristerakoan saila zein egoeratan aurkitu dugun zuei jakinaraztea nire betebeharra dela uste dut.

Hauteskundeen deialdiaz geroztik, zehazki martxoan eta apirilean, gobernuak, guztira, Hezkuntza arloko 32 akordio- eta ebazpen-proposamen onetsi zituela gogorarazi nahi dizuet; iaz epe berean izandakoak baino sei aldiz gehiago. Ez zirudien jada agortuta zegoen, eta gainera, behin-behineko eta erabakirik gabeko arauen garapenez markatutako legegintzaldi baten logikari erantzuten zionik jarduera horrek.

Sarritan arauak berandu iristen ziren eta ikastetxeek zirriborro hutsa ziren irizpideak jarraitu behar zituzten. Horrek guztiak, segurtasun-falta juridiko handia sortzen zuen eta nahaste eta ziurgabetasun sentsazio larria eragiten zuen, hezkuntza zentroei eragiten zien kostuarekin batera. Programak ugaritzeak eta hainbat jardun-lerro atomizatzeak larriagotu egiten zuen aipatu sentsazioa.



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

**Burokrazia sinplifikatu eta segurtasun-falta juridikoarekin bukatu behar dugu.** Zentroetako hezkuntza-komunitateek Hezkuntza Sailaren aldetik planteamendu garbia, ordenatua eta bateratua jaso dezaten nahi dugu. **Beraz, honako hau da nire lehen konpromisoa: errespetua pertsoneri eta pertsona horien eguneroko lana arautzen duten araei.**

Oraingo honetan, ez dugu 2009-2010 ikasturtearen hasiera oztopatuko duen ekimenik abiatu nahi izan eta aplikazio egokia izan dezaten aurrerago berriz diseinatu beharko diren ekimenei argi berdea eman diegu.

Kudeaketa gure esku hartzeko unean, aurrekontuaren % 67,91 gauzatua zegoen, aztertzen ari garen aurreikuspenen atal batzuetan hainbat desbideratzerekin batera.

Bestalde, honako hau gehitu nahi dut: niretzat eta nire taldearentzat oso pozgarria izan da hezkuntza administrazioaren zerbitzu desberdinetan profesional, teknikari, administrari eta bestelako langile koalifikatu askorekin topo egitea. Oso jarrera onez eta hezkuntza sistema hobetzeko lanean laguntzeko gogoz hartu gaituzte. Horiei guztiei nire esker ona adierazi nahi diet publikoki.

Talde profesionala eta bokaziozkoa osatu dut, ikasgelari oso lotuta eta trebakuntza maila handia duten pertsonen osatua. Zehazki, irizpide horiek izan ditut oinarri taldea osatzeko orduan, eta ez zein alderdiri atxikituta dauden. Talde gisa lan egingo du, zentzutasunez, gogoz eta ilusioz. Bi zuzendaritza izan ezik, taldea jada guztiz murgilduta dago bere lanean.

Halaber, Lurralde Ordezkaritzak eta ISEI-IVEI erakundearen zuzendaritza berritzeko prozedurak jadanik abian jarri ditugu.



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

Hezkuntza Saila osatzen duten pertsonen eta pertsona taldeen gaitasunari egindako aipamenak ez dira formaltasun hutsa. Nire ustez, ados egon gaitzke edozein pertsona talderen aberastasunik handiena berau osatzen duten pertsonen talentuan, lanerako gaitasunean eta sormenean oinarritzen dela esateko orduan.

### **Hori dela-eta, Hezkuntza da Aldaketaren Ardatza.**

Hezkuntzak pertsonak aldatzen ditu, gizarteak aldatzen ditu, haien hazkunderedua aldatzen du. Nirekin ados egongo zarete, gizarte moderno eta aberats guztien garapen sozial eta ekonomikoak egunetik egunera zerikusi handiagoa duela ezagutzaren kudeaketarekin, eta aitzitik, gutxiago baliabide material edo energetikoen antolaketarekin. Izaera materiala duten baliabide horiek ia beti ezberritagarriak diren heinean, pertsonaren adimena eta talentua hazi egiten da belaunaldi berri bakoitzarekin.

Baina euren kideen talentua modua egokian landu eta zabaltzea ahalbidetzen duten baldintzak sortzeko gai diren gizarteek soilik erdietsi dezakete arrakasta etorkizun oparo, justu, solidario eta jasangarria eraikitzeko orduan.

Hain zuzen ere, Hezkuntza da komunitateko pertsona guztien gaitasun intelektual eta emozionalak landu, garatu eta probetxu ateratzeko tresna ordezkazina. Modu egokian finantzatu eta kudeatutako hezkuntza sistema batek soilik atera diezaiekete probetxu pertsona bakoitzaren gaitasunei denen onurarako.

Gurea bezalako gizartearen konplexutasuna handitzeak, gure hezkuntza sistemak egungo eta etorkizuneko eskaerei erantzutea eskatzen digu; bai aurreikusi daitezkeen alderdietan eta baita aurreikusteko zailak diren beste batzuetan ere.

Ondorioz, eskuragarri dugun ezagutza ondo kudeatu behar dugu. Eta gainera:

- **Horretatik abiatuta aukera berriak sortu (berrikuntza).**



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

- **Ezagutza berri bat sortu (ikerketa), errealitatea hobeto ezagutu eta eraldatzeko, eta**
- **Ezagutza berri hori gizarte, ekonomia, kultura eta pertsonaren garapen bilakatu.**

Gure haur eta gazteak, XXI. mendeko gizarte batek bere baitan izan behar dituen ezagutza, gaitasun eta baloreen ezagutza egokiaz hornitzeko apustua egiten duen kalitatezko irakaskuntza:

- Errealitatea ulertzeko eta eraldatzeko ezagutzak, kultura eta gaitasun kritikoa duten herritar bilakatuko dituztenak eta profesional bikainak izatea ahalbidetuko dituztenak.
- Mundura ireki eta beste pertsona batzuekin elkarlanean aritzeko gaitasunak, egungo komunikazio aukerak erabiliz.
- Elkarrekin euskal gizarte demokratiko, tolerante eta solidario bat eraikitzeke baloreak.

**Hezkuntza aurrerapeneko tresna izateaz gain, haien etorkizuneko bermea dela uste dut.**

Pertsonen askatasunerako oinarrizko eskubidea da eta aukera berdintasunerako tresna; herritar bakoitzak, dituen sexua, sinesmenak, jatorria edo baliabide ekonomikoak izanda ere, bere gaitasun eta talentuaren arabera ahal dituen trebakuntza eta ezagutzak eskuratu ahal izateko eta bere gaitasunak garatu ahal izateko.

**Beraz, gizarte kohesiorako faktore estrategikoa da, baina era berean, bizitzeko eta lan egiteko modu berrien ondorioz sortutako beharrei erantzuteko ezinbesteko tresna da.**

## **Hezkuntzaren balioak**



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

Hezkuntza ezinbestekoa da balio etiko eta demokratikoak transmititzeko. Herritarren borondatearen emaitza diren erakunde, zuzenbidezko estatu eta ordenamendu juridikoarekiko oniritzia sustatu behar du Hezkuntza Sistemak.

Hezkuntza gazteak bizikidetza tolerante eta demokratiko batean trebatu daitezkeen gunea dela uste dut, Euskadin bereziki. Horregatik, **hezkuntza eremua giza eskubideak ordezkatzan dituzten balioak defendatzen**, bere eskubide eta betebeharez jakitun diren **herritarren prestakuntzan** eta indarkeriaren deslegitimazioan **bereziki beligerantea izatea planteatzen dut.**

Eta honi dagokionez, bi konpromiso hartuko ditut:

**1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetza Behatokiari bere esanahi osoa eman.**

**2.- ETaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikorako Bizikidetza eta Giza Eskubideen Hezkuntza Programa berriz ere egitea.**

### **Unibertsitatea ezagutzaren abangoardia gisa**

Gure gizarteak behar duen kultura eta zientzia arloko aurrerapenak gure unibertsitatea bikaintasun mailara eramatea eskatzen du. Ezagutza herri honen etorkizuna dela uste dut, eta horregatik, gure gobernuaren ekimenean goi mailako irakaskuntzak funtsezko papera betetzen du.

Unibertsitateko irakaskuntzen egungo erreforma-prozesua eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Espazioaren sorrera dira hori aurrera eramateko aukerak. Bietaz baliatu behar gara ondorengo hau gauzatzeko aukera bikain gisa:

- Goi mailako irakaskuntza gainerako hezkuntza sistemarekin egituratu.



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

- Kalitatean ez ezik, zuzentasunean ere aurrera egin. Horretarako, gure beka-sistema aztertu eta hobetu behar da unibertsitateko ikasketa mota guztietarako: gradua, graduondoa, doktoregoa eta doktorego ondokoa
- Gure unibertsitate-sistemaren etorkizuneko irakasleak hautagai onenen artean aukeratu.
- Unibertsitateko tituluen eskaintza berritu. Kalitatezko eta batxilergoa edo goi mailako prestakuntza zikloak bukatu dituzten gazteen eskariari egokitutako gradu-eskaintzaren aldeko apustua egin. **Kalitatezko eta nazioartean etorkizuna eta onarpena duten (ingelesezko eskaintzaren presentzia handiaren garrantzia) graduondo eta doktoregoko ikasketen** eskaintzaren konfigurazioa bultzatu, gure produkzio egitura eraldatzeko funtsezko elementu gisa, eta gure gizartearen etorkizuneko profesionalen (eta ikertzaileen) belaunaldien ezagutzan eta talentuan oinarritutako egiturarako bidean.
- Dagozkion ikasketa-planak eguneratu.
- Ikaslearen protagonismo handia izango duen eta irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta tutoretza-ekintza modu egokian bateratuko dituen irakaskuntza-ikasketa prozesu baten aldeko apustua egin.
- Azpiegitura berriez hornitu eta daudenak moldaketa honetara egokitu.
- Unibertsitatea eta produkzio-sistemaren arteko bateratzea hobetu, elkarren arteko berrikuntzaren zerbitzura eta ezagutzan eta balio erantsi altuan trinkoa den ekonomia eta industria sistemaren garapenaren zerbitzura.
- Unibertsitatearen indar guztia gizartera (normalean 'unibertsitate-hedapena' deitzen dena) eta etengabeko prestakuntzara hedatu.

Horretarako, ordezkatzan dudan Gobernuak honako konpromisoak hartuko ditu:

- **Egun dagoen beka-sistema hobetzea**, gero eta egiazkoagoa den aukera berdintasuna eskaini, bikaintasuna saritu eta prestakuntza handiko profesionalen (horietako asko doktore) trebakuntza ahalbidetzeko.



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

Honela, hurrengo ikasturterako gradu eta graduondoko ikasketak burutzeko beken zenbatekoa hobetu egin da. Ez da estatuko KPIa erabili (% 1.5), Euskadiko baizik (% 1.9). Honela, Espainiako gainerako herrialdeetan ematen den zenbatekoa gainditu egiten dugu.

- **Errenta-mailegu deialdi bat irekiko dugu**, nahi duten ikasleek mota honetako laguntzak eskura ditzaten euren familiaren errenta kontuan hartu gabe. Helburua, graduondo eta doktorego ikasketen aurrean emantzipazio pertsonaleko prozesuak laguntzea da.
- Hirugarren ekimenari dagokionez, hurrengo hilabeteetan **beke-deialdi berezi bat egingo da, batxilergo ikasketak bikain bukatu dituzten ikasleentzat**. Talentua eta egindako lana aitortzea da asmoa, nahi duten prestigiozko unibertsitatean ikasi ahal izateko. XXI. mendeko euskal gizartearen etorkizuneko liderren belaunaldia laguntzea da asmoa.
- EHUko graduko titulazio-eskaintza **zabaltzeko** prozesua abiatuko dugu. Gure unibertsitate-sisteman eskaintzen ez den eta eskari handiena duen titulazioarekin hasiko gara: **Fisioterapia**. Era berean, egun dauden ikasketetan espezialitate berri bat (**Geriatría**) gehitzeko aukera aztertuko da.
- Egungo Unibertsitate Plana indarrean den aldian finantzazio gehigarria egingo dugu: **hornikuntza zientifikorako** (3 milioi euro), **ikertzaileen prestakuntzarako** (2 milioi euro) eta I+G+b euskal sistemaren **finkatutako ikerketa taldeen** finantzazio gehigarriko (4 milioi euro).
- Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonalaren hornikuntzaren urritasun-egoeraren aurrean (UPV-EHUk du AZP/Irakasleria ratorik eskasena, estatuko unibertsitate guztien artean) EHUko AZP plantilaren handitzea baimendu eta finantzatuko da. Horrela, dagoeneko aurten 8 milioi euroko kreditua dago handitze horri aurre egiteko eta Unibertsitatea bera hasia da kontratazioak



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

egiten, 2009an zehar 80 langile berriri sarbidea emanaz eta hurrengo hiru urteetan beste 400i.

- 2011—2014 Unibertsitate Plan berria negoziatuko dugu eta indarrean den 2009-2010 aurreko Planaren aldian hobekuntza garrantzitsuak egingo ditugu:
- **Euskadiko lehen Zientzia Parkearen** lanen hasiera sustatuko dugu. Hori guztia, 2009-2011 aldian izango da.
- Prozesu honetan lan egin behar duten tresna arauemaileak – gure kompetentzien eremuaren baitan – eta erakunde edo agentziak (UNIQUAL, IKERBASQUE, Kontseiluak, eta abar) garatuko ditugu. Guztien funtzionamendu organikoa eta euskal unibertsitate sistema koordinatuko ditugu.

Zehazki, eta UNIQUAL Agentziarekin lotuta, funtzionamendua nabarmen hobetuko dugu. Hain zuzen ere, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak haren kalitate kontrolean paper erabakigarria ematen dio agentziari. Agentzia guztizko independentzia, eragingarritasuna eta zorrozatasuna duen profilararekin konfiguratzeke apustu erabakigarria dugu. Horretarako, bere Patronaturako prestakuntza eta independentzia handiko pertsonak izendatuko dira epe laburrean. Halaber, epe ertainean aurretik aipatutako balioak bermatuko dituzten arau aldaketak egingo dira.

Ikerbasque Fundazioari dagokionez, Patronatuan maila handiko euskal ikertzaileak sartuko ditugu, eta Fundazio honen lanak eta goi mailako irakaskuntzaren eta I+G+b-ren euskal sistemak hobe egituratu daitezen lortzeko lan egingo dugu.

- Gure sistemari baliabideak edo balio erantsia ekarriko dioten aukera eta programa oro aprobetxatuko dugu, bai Estatuko Administrazio Orokorretik zein Europar Batasunetik eskaintzen zaizkigunak (Ramón y Cajal motako



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

programak, I3, Bikaintasun-Campusa, Europa mailako programak, eta abar).

Honela, esaterako, EHU eta agian beste unibertsitatearen bat Gobernu zentraleko Hezkuntza eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioetako “Bikaintasun-Campusa” programan lehiatzea lagunduko dugu, gure unibertsitate campusak nazioartean ospetsuak direnen artean kokatuko dituzten jarduera finantzatzeko funtsak eskuratu ahal izateko.

- Unibertsitate jarduera osoan bikaintasun mailak lagunduko ditugu eta euren jarduerak nazioartekotzea sustatuko dugu (ikasleen trukeak, doktoregoak eta doktorego ondoko egonaldiak, atzerriko ikasleak erakartzea, bereziki graduondoko eta doktoregoetarako, eta abar).

Erkidego honetako bi hizkuntza ofizialek, nola ingelesak eta bestelako hizkuntzek, unibertsitatean baterako existentzia harmoniko eta elkar aberasgarria izatera lagunduko digute. Halaber, bikaintasun horren apusturako bidean, mundura irekiko gaituzte.

### **Gure Zientzia Politika (I+G+b)**

Balio erantsi handia duten jarduera ekonomikoak garatuko diren eta herritar kritiko eta parte-hartzaileen zerbitzura egongo diren teknologia berriek dakartzaten baliabide berritzaileak aprobetxatuko diren ezagutzaren gizarte baterantz aldaketa egitearen apustuak soilik garrantzia izango du, hezkuntza politika egokiarekin batera, abangoardiako anbizio handiko zientzia eta teknologia politika hedatzen baldin bada.

Horretarako, Gobernuak, Lehendakariaren gidaritzapean, gure gizartea, gizartearen egitura sozialak eta produkzio-egitura eraldatuko duen zientzia eta teknologia politika hori definitu, kudeatu eta ebaluatzeko konpromisoa hartu du jada; desiragarria eta ezinbestekoa den ezagutza handiagoa eta hobegoa, bizikidetzat handiagoa eta hobegoa, aberastasun material eta kultural handiagoa eta hobegoa ekarriko duen norabidean.



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

Gainera, berriki Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari arlo honetan egindako kompetentzien transferentziak, gogoeta serio eta zorrotza eskatzen du, kompetentzia horiek gure gain hartzea modu egokian egituratu ahal izateko. Transferentziaren aurretik, Eusko Jaurlaritzak I+G+b jarduerak sustatu eta laguntzeko hainbat programa mota abian zituen. Kompetentzia guztiak eskuratuta, horiek modu koordinatuan eta bateratuan kudeatuko dituzten egiturak ezarri behar dira.

Arlo honetan gure jardueraren kezka nagusietako bat, unibertsitateko sailek gauzatzen duten jarduera ikertzaile garrantzitsua eta aldi berean gure erkidegoan I+G+b jarduerak gauzatzen dituzten zentro eta instituzioen arteko artikulazioa eta koordinazioa hobetzea da.

Era berean, bikaintasun handiko ikertzaile seniorrak erakartzeko eta gure I+G-ak nazioartearekin lotura handiagoa izan dezaten lanean jarraituko dugu. Baina bereziki kezkatzen gaitu benetako karrera ikertzaile bat sortzea, gure unibertsitateetako ikasgeletatik pasatzen diren ikasle onenen potentzial izugarria aprobetxatzea ahalbidetuko diguna (maila altuan trebatzeko aukerak eskainiz eta I+G+b-ren euskal sisteman berme guztiakin sar daitezen).

Bikaintasun-ikerketaren sustapena eta gure produkzio-jardueren zati baten berriztapena guztiz bateragarriak direla uste dugu. Horretarako, munduko erregio edo herrialde aberatsenetakoei begiratzea besterik ez dago, eta aberastasun hori lortzeko zientzia eta teknologia sistema indartsu bat izatea baldintzetako bat (ez bakarria, egitura demokratikoak, justizia soziala eta egonkortasuna ere beharrezkoak baitira) dela ikusiko dugu. Horretarako, gure I+G+b sistemak paper garrantzitsua jokatu behar du gure enpresa asko berritzeko orduan eta beste asko sortzeko orduan. Izan ere, gure herritarren, bereziki hobekien prestaturiko gure gazte askoren, bultzada sortzailetik eta gogo ekintzailetik sortu dira enpresa horiek.

Horretarako, ordezkatzeko dudak Gobernuak honako konpromisoak hartuko ditu:

Lehendakariaren gidaritzapean eta hilabete gutxitan, Gobernuaren egitura egokitzea, beharrezko aldaketak onartuz, I+G+b alorrean berriki transferitutako kompetentziak modu arduratsuan eta eraginkorrean gauza daitezen ziurtatzeko, horretarako egokiena delako hautatzen den erakundearen bitartez.

Doktorego aurreko eta ondoko beken politika eta bestelako programak - hala nola, I3, Juan de la Cierva, Ramón y Cajal eta Europako Batzordeak burututako



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

antzekoak-, gure Unibertsitateetako eta euskal sareko ikerketa eta teknologia zentroetako ikertzaileei dagozkien politikekin egituratzea. Helburua, gure gazte adimentsuenentzat eta ikerkuntzarako bokazioa dutenentzat ikerketa karrera profesional erakargarri bat definitu eta abian jartzea da.

Kompetentzia duten Gobernu honetako gainerako Sailekin lankidetzan, dauden sareak eta I+G+b jarduerekin lotutakoak berrantolatzea: unibertsitateetakoak, Teknologia Zentroetakoa, CIC-koa, BERC-koa, osasunekoa, nekazaritza eta abeltzaintzakoa, eta abar. Orain arte egindakotik abiatuta, egon daitezkeen sinergiak ahalik eta gehien baliatuko dituen eta elkarlaneko apustu mota guztietan sakonduko duen eredu berri baterantz aurrera egitea da asmoa.

Jarduera ikertzaile zati baten orientazioan gure enpresen arazoak konpontzeko bidean (egungo krisiaren ondoriozko koiuntura-arazoak, nola egiturazkoak eta gure produkzio-egitura osoaren tentsio berritzailea bermatu behar dutenak) aurrera egiten ahalbidetuko duten enpresa munduaren eta unibertsitateen eta ikerketa edo teknologia zentroen arteko lankidetzaren ekimen sinesgarri oro laguntzea; esaterako, enpresa mundua jarduera ikertzaile horren zati bat geroz eta handiagoak diren funtsen bidez finantzatzea.

**Hazkunde ereduaren aldatzeko lan honetan, gainera, Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten eta publikoak ez diren beste bi unibertsitateak kontuan izan nahi ditugu. Haiekin batera, elkarreragineko formula eraginkorrak bilatuko ditugu.**

### **Bizitza osoan baitako ikaskuntza**

Orain arte aipatutako alderdi guztietan unibertsitateak betetzen duen funtzioa funtsezkoa bada ere, inolako zalantzarik gabe **baiezta dezaket, bizitza osoan baitako ikaskuntza** dela pertsonen gizarteratzea lortzeko eta gizarateak berak aurrera egiteko gakoetako bat. Pertsonak ezagupenak, gaitasunak eta trebetasunak eguneratu, zabaldu eta berritu egiten dituzte bizitza osoan baitan, eta gizarateak pertsona horien beharra du aurrera egiteko.

Lanbide Heziketa da horretarako ardatz nagusia eta, lanbide-heziketarekin batera, beste hainbat oinarriko kompetentzia: kompetentzia matematikoak zein linguistikoak, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiekin erlacionatutako kompetentziak, ikasten ikasteko kompetentzia, autonomia pertsonala eta soziala garatzen duena, edo kultur kompetentziak eta herritar izateko kompetentziak.



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

**Hezkuntza Sistema osoa lotu nahi dut Etengabeko Hezkuntzaren bitartez, baita Goi-mailako Hezkuntza ere.**

**Bizitza osoan baitako ikaskuntzarako lege-proiektu bat** aurkezteko konpromisoa hartu dut: mota orotako ikaskuntzak barne hartuko ditu eta prestakuntza sustatzeko eta herritarrak prestakuntza jasotzera animatzeko balioko du.

Pertsona helduen prestakuntza osoa barne hartzen duen ikuspegi integratu batetik landuko dugu proiektu hori, eta bere helburua izango da prestakuntza-eskaintza guztiak, Lanbide Heziketan zein Batxilergoan egiten direnak eta pertsona helduen hezkuntzan edo beste hainbat hezkuntza-esparrutan egiten direnak, modu malguago batean koordinatzea.

Horrenbestez, testu berriak Pertsona Helduen Hezkuntzarako programak artikulatzeko aukera ematen digu, eta interesdun guztien ikaskuntza formalak eta ez-formalak aitortzeko eta prestakuntza-prozesu egokiena hautatzeko sistema bat proposatzen du, lanbide-eskumenak aitortzeko sistemaren antzekoa.

### **Lanbide Heziketa krisiaren kontra**

**Lanbide Heziketako sistema erabat bateratzea da legegintzaldi honetako erronketako bat.** Horretarako, lanbide-heziketako **eskaintza bat eta bakarra** egin behar dugu; ikastaro, modulu eta zikloen katalogo bat osatu behar dugu, bakarra, bi azpisisistemarako curriculum bera eskainiko duena. Bi azpisisistemak hastapenetako prestakuntza eta enplegurako prestakuntza dira. Izan ere, ezin dugu ahaztu, bizitza osoko ikaskuntzekin osatzen ditugula hezkuntza-ibilbideak eta, beraz, sistemak nahikoa malgua izan behar du ikasleak ikasten duen gauza oro aitortu eta baloratzen dela ikusteko eta ohartzeko.

Datorren ikasturtean LOEk araututako curriculum berrien ezarpenari ekingo diogu. Aipatu berri dudan irizpidearekin bat eginez, katalogo bakarra osatuko dugu, lanbide-heziketako eskaintza bakar eta koordinatu bat egiteko.

Ildo horretan, Lanbide Heziketako Kalitaterako eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak oso zeregin garrantzitsua bete dezake Lanbide Heziketako sistema integratu bat lortzera bidean.

Aipatutako Agentziari dagokio moduluen katalogoa sortzea, kompetentziak ebaluatu eta ziurtatzea eta kalitatezko prestakuntza eskaintzea. Xede horrekin,



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

prozesu osoaren jarraipena eta ebaluazioa egingo da. Gainera, helduek euren bizitzan egindako ikaskuntza formalen eta ez-formalen bitartez bereganatu dituzten kompetentziak ziurtatuko dira (ikastaroak, lan-esperientzia, eta abar). Halaber, bizitza osoan baitan bereganatu diren kompetentziak “**kompetentzia-txartelean**” aitortu eta adieraziko dira. Kompetentziak ziurtatzeko balio du txartelak.

**Krisiaren kontra borrokatzeko Lanbide Heziketatik beharrezkoak diren baliabideak erabiltzeko** plan bat abiaraziko dugu, era berean. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailarekin koordinatuta garatuko dugu aipatutako plana. Lehentasuna emango diegu gaur egun eskari handien sortzen duten eta etorkizunean eskari handien sortuko duten lanbideei, eta langabezia dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen prestakuntza-beharrei erantzuteko lan egingo dugu.

Informazioa eta aholkularitza eskainiko diegu guztiei, euren prestakuntzarekin erlacionatutako erabakiak hartzen laguntzeko eta, horrela, dituzten lanbide-kompetentziak eguneratzen asmatzeko. Halaber, Agentziak kompetentzia guztiak aitortuko ditu, pertsona horien lan-txertakuntza laguntzeko.

- Bestalde, 2010-2013 Lanbide Heziketako Euskal Plana landuko dugu (lehen gogoratu dudanez, azkena 2007an amaitu zen). Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluarekin batera egingo dugu.

Planaren erronka nagusia lanbide-heziketako sistema modernizatzea da. Horretarako, **bertaratu gabeko modalitateak** eskainiko dira, informazioaren eta komunikazioaren **teknologia berrien erabilera eta ezarpena** sustatuz, irakatsi eta ikasteko prozesuetan berrikuntza metodologikoak eginez eta kalitatearen kudeaketa ziurtatuz, eta zentroei lan gehigarrikerik eragin gabe egingo da, gainera; emaitzen etengabeko ebaluazioaren kulturaren garrantzia azpimarratuko da, eta ingurumena zaintzeko jardunbide iraunkorrak garatu eta burutuko dira, eta laneko prebentzioa eta osasuna sustatzeko neurriak hartuko dira.

## **Eskola, ezagutzaren oinarria**

Orain arte aipatutako guztia lortzeko, gure oinarritzko hezkuntza hobetu behar dugu ezinbestean. Bikaintasuna lortu behar dugu; alegia, oinarritzko hezkuntza-sistema bikain eta sendo bat behar dugu, eta hori oinarrian hartuta eraiki behar dira gainerako hezkuntza-mailak.



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

Horretarako, funtsezkoa izango da euskal hezkuntza-sistema osatzen duten ikastetxe guztiek ahalegin berezia egitea. Horrenbestez, guri dagokigunez, gure sistema modernizatzea eta bere kalitatea hobetzea bilatuko dugu lehentasunez.

### **Euskal hezkuntza-sistema modernizatzea. Jarduera-lerroak:**

#### ➤ **Europako hezkuntza-helburuekiko konpromisoa**

Nire asmoa ez da helburu guztien nondik norakoak azaltzea, baina egoki deritzot niretzat garrantzi berezia duten **bi** hauek azpimarratzeari:

**Lehenengoa**, eskola-uzte goiztiarra da. Europako erreferentziako datuen arabera, derrigorrezko eskolatzea amaitzean, 18 eta 24 urte arteko pertsonen artetik % 10ek ez dute prestakuntza gehiago jasotzen.

Guri dagokigunez, % 13-15 arteko portzentajeak erregistratu dira. Gizonen eta emakumeen arteko aldea azpimarratu behar da, emakumeen bikoitza direlarik eskola-uzte goiztiarra egiten duten gizonak.

Eskola-uzte goiztiarra murriztu behar da beraz, eta hezkuntza-esparruaz haraindi, bidezko eta berdintasunezko sistema batek emango digu horretarako aukera; eta, horregatik, hain zuzen ere, prebentzio-neurriak hartu behar ditugu eskola-zailtasunak antzeman eta berehala.

Zentzu horretan, Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzean trebetasun instrumentalak menperatzen dituzten ikasleen portzentajea areagotzeko lan egingo dugu. Diagnostikoaren ebaluazioan lortutako emaitzak hartuko ditugu kontuan ikastetxeetan hobekuntza-planak eta laguntza- eta errefortzu-neurriak ezartzeko, eta material berriak landuko ditugu, irakasleei oinarrizko konpetentziak lantzen laguntzeko.

Era berean, neurri gehiago prestatzen eta ezartzen ari gara. Horien artean mantentze-bekak aipa daitezke, eskola uzteko arriskuan dauden ikasleek hezkuntza-sistemaren barruan jarraituko dutela ziurtatzeko.

**Bigarren** helburuari dagokionez, ikasleen % 85ek bigarren hezkuntzako goimailako titulazio bat edukitzea lortu nahi dugu, alegia, unibertsitate-ikasketak edo lanbide-heziketako zein arte-irakaskuntzetako goi-zikloak amaituta edukitzea.



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

Izan ere, Europar Batasunean ezinbestekotzat jotzen da aipatutako ikasketa-maila amaituta edukitzea, lan-merkatuan kokapen egokia eta lehiakorra lortu nahi bada.

Lehenengo kasuan esan dudan moduan, kasu honetan ere azken urteetan alde nabarmena ikus daiteke gizonen eta emakumeen artean. Horrenbestez, funtsezkoa da prestakuntza-eskaintza **malgua** egitea, ikasten jarraitu nahi duten ikasle guztiei ikasten jarraitzeko aukera emango diena, eskoletara bertaratuz edo bertaratu gabe ikasteko aukera eta ikasketak osorik zein zatika egiteko aukera barne hartuz.

➤ **Hirueletasuna**

Gure gazteak mundu globalizatu batean biziko dira eta gero eta eragin eta agerpen handiagoa edukiko dute Europar Batasunak hartzen dituen erabakiek gazte horien gizarte- eta lan-esparruan. Hori dela eta, esparru hirueledun malgu bat osatzeko proposamena egin dugu. Ingelesa izango da hirugarren hizkuntza, eta helburu komun batzuetan oinarrituta landu diren ikastetxeko hizkuntza-proiektu ugari hartuko dira oinarrian proiektua lantzeko. Proiektu hirueleduna da, baina ez du baztertzeko Europako beste hizkuntza batzuk ikasteko aukera.

Haatik, aukeratutako hizkuntza-trataera edozein delarik, dagokion etengabeko ebaluazioa egingo zaio, ikasleen eskola-errendimenduan izan dezakeen eragina ezagutzeko.

Hirueletasuna sustatzera zuzendutako neurriak abiarazi aurretik, hezkuntza-sistemak egun duen egoeraren diagnostikoa egin behar dela uste dugu; halaber, azken urteetan hizkuntza atzerritarra irakaskuntza-hizkuntza nagusi gisa erabiltzeko esperientziak egin dira eta lortutako emaitzen diagnostikoa egin beharko genuke.

2010eko otsailerako amaituta edukiko dugu ebaluazioa, eta, ondoren, legegintzaldi honetan garatuko den **Hezkuntza Hirueledunerako Markoa** definituko duen proposamena aurkeztuko dut. Horrez gain, eta hasierako ebaluazioarekin batera, bi jardun-lerro landuko ditugu: irakasleen prestakuntza eta ikastetxeetan jatorrizko irakasleak edukitzeko beharra (ingelesez komunikatzeko konpetentzia lantzeko oso lagungarria baita).

➤ **Haur Hezkuntzako lehen zikloa**

Azken urteetan gora egin dute gure erkidegoan erregistratutako eskolatze-tasek eta, horri esker, gaur egun bi urtetik gorako haurren ia % 100 daude eskolatuta. 0



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

eta 2 urteko haurren kasuan, % 29,4 inguruko portzentajeak lortu dira, nahiz eta hezkuntza-zerbitzu honek duen eskaria egiten den eskaintza baino altuagoa den oraindik ere.

Garbi dugu Haur Hezkuntza osoa garrantzi handiko etapa bat dela, eta, horren barruan, lehen zikloa funtsezkoa da haurren garapenerako; hortaz, kontuan hartu behar dugu, ezinbestean, hezkuntza-sistemaren kontzeptua osatzean.

Haurtzaroan espezializatutako aditu askok azpimarratu dute oso aberasgarria gertatzen dela haurrarentzat, ikastetxe batera joatea eta bertan adin bereko haur gehiagorekin erlazionatzea eta ondo definitutako hezkuntza-proiektu baten barruan lan egiten duten maisu eta maistrekin eta profesionalekin lan egitea.

Hain zuzen ere, lehen ziklo honek duen garrantziari helduta, **orain arte egindako eskaintza hobetzeko konpromisoa hartzen dut, eta legegintzaldiaren amaieran interesa duten pertsona guztiei Haur Eskola batean plaza bat edukitzeko aukera ziurtatzeko neurriak hartuko ditut.**

➤ **Zientziak sustatzea**

Funtsezkoa da unibertsitatera iritsi aurreko hezkuntza-etapetan zientziak lantzea, horrela lortuko baitugu ikerketa zientifikoaren esparruan dugun agerpena eta Jakintzaren Gizartea garatzeko indarra areagotzea. Hala ere, PISA frogetan lortutako emaitzei erreparatuz, gure ikasleek inguruko beste erkidego batzuetakoek baino emaitza kaxkarragoak lortu dituzte (besteak beste, Kantabria, Nafarroa, Errioxa, eta abar).

Hori dela eta, gure gazteen prestakuntza zientifikoa sustatzeko lan egingo dut, adin goiztiarretatik hasita. Zientzia eta teknologia ezagutzen hasteko esperientzia erakargarriak sustatuko ditugu eta gure maisu eta maistren zientzia-ezagupenak eguneratzea lortuko dugu.

➤ **Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak**

Zientziak eta teknologiak erabat aldatu dute gure bizitza, baina ez dute eragin bera lortu, oraindik, irakaskuntzan. Arrazoi anitz eta askorengatik, eskolak uzkur izan dira hobekuntza teknologikoak erabiltzeko orduan. Urteak behar izan ziren bolaluma bezalako asmakuntza bat eskola-espazioan tresna arrunt bihurtzeko. Ez zen lortu eskoletan idazmakinarik sartzeara. Ezin dugu akats bera errepikatu informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriekin.



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

“2.0 Eskola” proiektuan parte hartuko du gure erkidegoak datorren ikasturtean. Proiektu horren eskutik Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasle guztiek ordenagailu eramangarri bat edukiko dute. Gainera, “gela digital” berri hauetan arbela digital bat egongo da.

Baina eskolaren digitalizazioa ordenagailu bat eta hari gabeko konexio bat eskaintzea baino zerbait gehiago da. Teknologia berriekin erabiltzeko material egokia sortu behar da, oraindik ez baita gehiegi egin. Material berriaren beharra agerikoa da gure erkidegoaren kasuan, erkidego elebiduna izanik, gaztelaniaz zein euskaraz landutako materialak behar baitira. Horrenbestez, gelan erabiltzeko materialak landuko ditugu, guk geuk zuzenean eta hainbat erakunderekin egindako hitzarmenen bitartez.

Modu berean, irakasleen prestakuntza indartzeko beharra azpimarratu nahi dut. Irakasleek teknologia berriak ondo erabiltzeko ezagupenak behar dituzte eta, xede horrekin, teknologia berriak segurtasunez erabiltzen badira sortuko diren aukerak eta mehatxuak ezagutzera eta ikertzera animatu behar ditugu.

5 milioi euroko aparteko kontusaila bideratu dugu hori guztia lortzeko. Esanak esan, guztira 10 milioi eurotik gora izango dira.

➤ **Ebaluazioa**

Ezinezkoa da kalitatezko hezkuntza-sistema bat osatzea, sistemaren ebaluazioa egin ezean. Ebaluazioari esker bakarrik ezagutu ditzakegu sistemak dituen alderdi sendoak eta alderdi ahulak; behin ezagutu ondoren, lehenengoak indartzeko eta bigarrenak murrizteko lan egingo dugu. Ezinezkoa da ezagutzen ez dena hobetzea.

Gizarteak gure hezkuntza-sistemaren errealitatea gardentasunez eta zehaztasunez ezagutzeko eskubidea du. Ebaluazioa esatean, ikastetxe batek bere hezkuntza-helburuak zein neurritan betetzen dituen jakiteko egiten den azterketa-prozesua ulertu behar da. Lortutako emaitzen arabera, ikastetxe bati bere ikasleei eskainitako balio erantsia eta egindako baliabideen erabilera eraginkorra erakusteko balio dio ebaluazioak. Hortaz, garbi dago ez dela rankingak egiteko erabiliko.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan egin diren diagnostiko-ebaluazioen emaitzak datorren ikasturteko lehen hiru hilekoan ezagutzera ematea gustatuko litzaiguke. Esperientzia horrek, gainera, ikastetxeetan hezkuntza-erkidegoa eta administrazioa bera nahastuko dituen ebaluazio-kultura lantzen eta garatzen lagunduko digu.



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

## **Egindako ebaluazioaren emaitzak Legebiltzarrean aurkeztuko ditugu.**

### ➤ **Irakasleen prestakuntza**

Hezkuntza-sistema baten kalitatea bertan lan egiten duten profesionalen prestakuntzaren eta kualifikazioaren mende dago. Irakaskuntzari dagokion prestigioa ematen dioten eta irakasle izateko profesional onenak lortzen dituzten herrialdeek bakarrik lortzen dute arrakasta. Eta horren adibide garbia da Finlandia.

LOEn ezarritakoari jarraituz, irakasleen hastapenetako prestakuntza berri bati ekiteko unea iritsi da. Horren arabera, maisu eta maistra berriek graduiko ikasketak egin beharko dituzte; alegia, ikasketak urtebete luzatuko dira. Ikasketa horien barruan praktikak egingo dira, baina gaur egungoak baino luzeagoak izango dira.

Bestalde, Bigarren Hezkuntzako etorkizuneko irakasleek trebakuntza pedagogikoko master bat egin beharko dute, dagokien espezialitateko ikasketak osatzeko.

Unibertsitatearekin batera elkarlanean, prestakuntza-eredu berri bat diseinatuko dugu, irakaskuntzari dagokion prestigioa emateko eta irakaskuntzara profesional onenak erakartzeko. Eredu berriak irakasle aditu baten tutoretzapeko praktikak barne hartuko ditu, prozesuaren sendotasuna ziurtatuz.

Belaunaldi batetik bestera ezagupenak gardenki eta erraz igortzea lortu behar dugu, eta buru belarri jardungo dut horretan. Halaber, gaur egun lanean ari diren irakasleei etengabeko prestakuntza eskaintzeko lan egingo dugu, aintzat hartuko ditugu eta gizartearen aurrean irakasleek betetzen duten funtzioaren garrantzia eta familien laguntzak eta parte-hartzeak duen garrantzia ere azpimarratuko dugu.

## **Euskal Eskola Publikoaren plan estrategikoa**

### **Eskola Publikoa berpiztuko dugu.**

Azken legegintzaldietako egoera gainditu eta Euskal Eskola Publikoak erreferente izatera iritsi behar du, aukera-berdintasunaren printzipioa bermatzen duelako.

Azken urteetan erakutsitako axolagabekeriaren ondorioz, Euskal Eskola Publikoa ez da behar den bezala garatu eta arazo handiak sortu dira, eta erantzun gabe



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

daude gainera, eskaintzaren kokapenarekin erlazionatuta eta instalazioak antolatu, kontserbatu eta eguneratzeko beharrekin erlazionatuta.

Legegintzaldi honetan **Plan Estrategiko** bat sustatuko dut. Besteak beste, honako esku-hartze hauek aurreikusi ditut:

- **Haurreskolak** kontsorzioaren bitartez eskaintzen diren plaza publikoak Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloarekin konektatzea, ikastetxe publikoen eskaintza osatuz.
- Hezkuntza-sistema osatzen duten etapak eskaintzen dituzten ikastetxeak **elkartzea**, hartara, eskolatzea hasten denetik amaitzen denera eskola-ibilbide osoa egituratzeko. Eraikuntza berriko ikastetxeek **eskaintza osoa** egingo dute.
- Eskola publikoko lanpostuen eskaintza nahikoa ez den inguruetan, eta herrigune berrietan, **eskaintza** sustatzea.
- Ikastetxe publikoen **instalazioak**, ekipamendua eta efizientzia hobetu eta modernizatzea, maila guztietan. Xede horrekin, urte anitzeko inbertsio-plan bat abiaraziko dugu.
- Ekipo pedagogiko **egonkorrak** osatzeko lan egitea. LOEren esparruan urtero egiteko aurreikusi diren enplegu publikoaren eskaintzak egiten jarraituko dugu. Betiere, bitarteko langileak plantilla osoko % 8 baino gehiago ez izatea lortu behar dugu.
- **Zuzendaritza-funtzioari** izaera egonkorra ematea. Legean egindako aldaketek ematen dizkiguten aukerak garatu behar ditugu. Besteak beste, prestakuntza, ebaluazioa eta ordainsari-osagarriaren portzentaje bat osatzeko aukera aurreikusi dira; guztiak ere zuzendaritza-taldeek egonkortasuna laguntzeko dira, nahiz eta gure erkidegoan aplikatzeke dauden oraindik.

Halaber, zuzendaritza-taldeekin harremanak edukitzeko komunikazio-kanal egonkorrak eskaintzea gustatuko litzaidake, benetan garrantzitsua delako egiten duten lana. Hezkuntza-sistemako ardatzetako bat direla deritzot, ikastetxeen errealitatearen eta Hezkuntza Administrazioaren arteko komunikazio-kanala diren neurrian.



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

Inguruan ditugun beste herrialde batzuekin alderatuta, gure sistemak defizit nabarmena du ikastetxeen **autonomiari** dagokionez. Jakin badakigu administrazio-egiturak berak zailtasun handiak jartzen dituela sistemaren akatsak hobeto ezagutzeko eta mugatzeko, batez ere giza baliabideekin erlazionatuta badaude. Haatik, hori ez da oztopo izango ikastetxeek erabakiak hartzeko duten eskumena indartzera bidean egingo den lanean.

- Gogoeta-prozesu bat irekitzea zuzendaritza-taldeekin batera, ikastetxeen autonomia areagotzen lagunduko duten alderdi guztiak ezagutu eta garatzeko. Besteak beste, administrazioarekin, eta ikastetxe bakoitzarekin, kontratu-programak egiteko aukera azter daiteke.

➤ **Arreta pertsonalizatua dibertsitatea tratatzeko**

Gure ikastetxeetan gero eta agerikoagoa da ikasleen arteko dibertsitatea. Dibertsitate horri ematen zaion hezkuntza-erantzuna zaindu eta egokitu egin behar da, eskola-arrakasta lortu nahi badugu, eta ikasle bakoitzak bere gaitasun eta interesetara hobekien egokituko den prestakuntza-ibilbidea hautatu ahal izateko.

Arreta pertsonalizatua eskaini behar da horrelako egoeratan, eta ikasle bakoitzak duen egoeraren azterketa izango da abiapuntua.

Tutoretza-ekintzako planak indartu nahi ditugu, ikasleei ematen zaien arreta hobetzeko eta familiekiko harremanak arintzeko eta errazteko. Irakaskuntzaren indibidualizazioa bilatuko duen plan bat garatzeko asmoa dut. Xede horrekin, laguntza-figura bat sortu nahi dut, ikasle bakoitzak betetzen duen hezkuntza-prozesuaren jarraipena egiteaz arduratzeko.

## **Elebitasuna**

Hausnarketa bi egiten hasiko naiz:

- **Eskolak ezin du hizkuntza-alorreko eginkizun guztia bete, zenbait jaun-andrek beti gogorarazten duzuen bezala.**
- **Hizkuntza-tratamendu guztiak etengabe ebaluatu beharra dago, ikasleen eskola-errendimenduarengan duten eraginagatik.**



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

Hirueletasuna gure espazio- eta, batez ere, denbora-eremuko behar propioa da. Halere, bere garrantzia azpimarratzeak ez du kezko murrua izan nahi gure herriko eztabaida-osagai ia etengabea izan den gaiaren tratamendua ukatzeko. Gure bi hizkuntza ofizialen ikasteaz ari naiz: euskara eta gaztelera, **hiru arrazoi zehatzengatik nire agerraldiaren bukaeran aztertzen dudana.**

Lehenik eta behin, ikaskuntzan zeharreko gure hizkuntzen berrindartzea **zeharkakoa** delako Hezkuntza-sistema osoarekiko.

Bigarrenik, ondorioak direlako normalean **arreta gehien** jasotzen dituztenak.

Eta hirugarrenik, **elebitasuna hizkuntza-arloan aurrera egitea ahalbidetuko duten akordioak eraikitzeko behar saihestezinarekin lotu nahi izan dudalako.**

Euskararen Legearen inguruan 1982. urtean lorturiko adostasunaren oinarriak gure gizartearen ezaugarrietarako apropos eta egokiak azaldu zaizkigu. Hizkuntza-politikak aipatuak etengabe berpizteko beharra du. **Baina oinarriak higatu edo, are gehiago, nabarmenki aldatu nahi izan diren bakoitzean arazoak sortu dira.**

**Berrikuntza-iturri** den eta emaitza bikainak dituen **Hezkuntza-sistema elebidun on bat dugu.** Hor daukagu 4. Mapa Soziolinguistikoa, 15 urtetik azpiko gazteen %85a elebidun dela dioena.

Hezkuntza-sistemaren elebitasunaren oinarria 1982ko **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen** eta **Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen** inguruko adostasunak dira. Aproposak suertatu zaizkigun eta gure gizartearen egoera aldakorraren beharrei erantzun dieten adostasunak dira.

**Irakaskuntzan, bi hizkuntza ofizialak izango dira irakas-hizkuntza. Gure xedea elebitasun integratzailea lortzea da, bi hizkuntza ofizialen**



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

**irakas-erabilera, beren ezagutza eta beren erabilera sustatuz familien irakas-hizkuntza erabakitzeko askatasunetik abiatuta eta irakasleen iritzia aintzat hartuz** (Euskal gizartearen zerbitzurako aldaketa demokratikoaren oinarriak: PSE-PP).

**Helburu hau bat dator Euskera 21 dokumentuarekin, hau da, elebitasun orekatua lortzeko helburuarekin.**

**Nire nahia da herri honetako bi hizkuntza ofizialek, euskara eta gaztelera, tratamendu egokia izan dezaten irakaskuntzan eta beren ezagutza egokia ahalbidetzen duten baliabide guztietaz goza ditzaten. Beren ezagutza gizarteratzearen berme da.**

**Familiak hizkuntza aukeratzeko duten askatasunaren printzipioa aukeratzeko ez den beste hizkuntza ikasteko beharrarekin uztartu beharra dago.** Eta, horretarako, hizkuntzak irakas-hizkuntza gisa erabili behar ditugu.

Euskararen erabilera urria arazo bat da. **Horregatik euskararekiko hurbiltasuna eta maitasuna lantzeko konpromisoa hartzen dugu.** Euskararekiko atxikimendua handitzea hizkuntzari askatasuna ematea da, batere onurarik ez dakarten soberako inposizioetatik at. Hizkuntza, zenbat eta maitatuago, hainbat eta erabiliago.

Gehiegikeriek eta inposaketek ezingo dute inoiz euskararentzako biderik egokiena orientatu. **Konbentzitu egin behar da.** Horregatik, dakizuen bezala, aldatu egingo ditugu adostasun politikorik gabe egin diren curriculum-dekretuen artikuluak.

**Hizkuntzen arteko araudi-hierarkizazioa saihestea funtsezko baldintza da adostasunak lortzeko, ofentsak ekiditeko. Hizkuntzen araudi-**



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

**berdintasuna bateragarri da bien irakas-erabilerarekin eta ez du aurreiritzik ematen zentro batek, bere hizkuntza-proiektuaren arabera, bata zein besteari ematen dion proportzioaren inguruan.**

**Adostasuna berpiztu beharra dago.** Euskararen Aholku Batzordearen Euskara 21 azken txostenak dioenez: “Zuzendu beharrekoak detektatu eta **adostasun zabalez** aldatzeari ekin beharko zaio, beti ere helburu nagusia garbi izanik: eskolak euskaldundu du, euskalduntzen du eta euskalduntzen jarraitu behar du, gurasoek seme-alaben irakaskuntzarako hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta ikasleek derrigorrezko irakaskuntzaren buruan Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan gaitasun nahikoa lortzeko betebeharra harmonizatuz. Hirugarren hizkuntza baten neurri apalagoko irakaskuntzari ere tokia egin behar zaio bertako bi hizkuntza ofizialen irakaskuntzaren ondoan”.

Ez dut uste Ganbera honetako gehiengoak kontrakorik duenik gogoratu nahi izan ditudan hitz hauen inguruan.

### **Akordioak lortu Euskal Hezkuntza hobetzeko**

Helburua hezkuntza hobetzea da. Eta akordioa da helburu horretara iristeko ezagutzen dudan tresnarik eraginkorrena. Hezkuntza-akordioaren onurak ezagunak dira guztiontzat. Besteak beste, adostasunak nahi ditut, batez ere, zentro guztiak segurtasunezko eta beren proiektuen etorkizunerako bermeko hodeiertzean lan egin dezaten.

1992an eta hezkuntza-akordioari esker, egituratu egin genuen Euskal Eskola Publikoa, elebitasuna sustatu genuen, irakasleen baldintzak hobetu genituen eta sistema planifikatu genuen.

Orain lanean jarraituko dugu akordio-esparru hori indar politiko guztietara eta hezkuntza- eta gizarte-eragileetara hedatzen; **hori da gizarteak eskatzen diguna hezkuntza hobetzeko.**



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

Eragile politiko eta sozialekin ditudan bilerak bukatu bezain azkar, hasiko naiz prozeduraren diseinua egiten, euskal hezkuntzan hobetu beharreko gaiei buruzko hausnarketa egin ahal izatea bideratuko duena. **Hiru ardatzen inguruan egingo dugu.**

- Euskal hezkuntza-sistema osotasunean eguneratzeko plana.
- Euskal eskola publikoaren plan estrategikoa.
- Diru publikoarekin babesturiko zentroen tratamendu zuzen eta berdina bermatzeko esparrua.

Ahalegin hau guztia beste batekin lagunduta etorriko da. **Hezkuntzaren helburuak euskal gizartera zabaltzea, hain zuzen ere. Euskal gizarteak lagundu egin behar baitigu beren seme-alaben hezkuntzan, gure lankiderik behinena izan behar da.**

Gure jarduna **elkarren laguntzan** eta **kooperazioan** oinarrituko da, bai kanporantz, Ministerioarekin eta beste Autonomia Erkidegoekin Hezkuntza Konferentzian parte hartuz, bai barnerantz.

Barnerantz, zentro eta profesionalen elkarlanerako guneak abiaraziko ditut. Eta baita hezkuntza-eremuan eragina duten erakundetarako ere. Elkarlan-praktika bikainak lortu dituen toki-eremua dago, argigarria izan daitekeena eta sustatu beharra duguna.

Desagerrarazi behar dugun **isolamendu-sentimendua** dago irakasleen artean. Gure helburua da gelako lana erraztea; gela, egun, zabalagoa da, irekiagoa eta, horren ondorioz apika, konplexuagoa. Eta irakasleek, lan horretan, beren esfortzua ez dela ez alferrikakoa ezta bakana ere jakin behar dute. Are gehiago, arlo honetan arduraren bat duten erakunde guztiek lan hori aitortu eta babestu egiten dutela eta beraiek ere kontu eske etor daitezkeela gurera.



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

**Hezkuntza, nire ustez, ezinbesteko tresna da hazkunde-eredua aldatzeko.** Hezkuntza-sistema osoak eraikitzen ari garen ezagutzaren gizarteari modu erabakigarrian lagun diezaion, hori da gure helburua.

Aldaketak aukera-iturri dira; baita, noski, arrisku-iturri ere. Azken horien aurka aitzinamendua, esfortzua, elkarriketa eta zintzotasuna, ohore handiz zuzentzen dudana eta zuen zerbitzura dagoen taldearen jardute-oinarriak alegia.

Azkenik, hezkuntzaren eta irakaskuntzaren inguruko akordio handia lortzeko deia egin nahi diet hezkuntza-eragile eta indar politiko guztiei. Etorkizuneko belaunaldiei utz diezaiekegun oinordekotzarik onena hezkuntza-sistema egokia eta zorrotza da, ziur nago. Egiatasuna eta esfortzua aitortzen dituen balore-sistema batean oinarrituriko hezkuntza-sistema. Non askatasuna eta tolerantzia elkartasunerantz eramaten duten bertuteak izango diren. Finean, jakindurian eta ezagutzan oinarrituriko hezkuntza-sistema.

Harrotasun duina sentitzen dut, euskal kultur onenaren demokrazia- eta kultura-baloreak birsortzeko esfortzua zuzentzeagatik; eta, jaun-andreok, euskal gizarte jantziago, jakitunago eta etorkizunari aurre egiteko prestatuagoa ekarriko duen hezkuntza-akordiora dei egiten dizuet. Polemika zaharrak eta iraganeko antagonismoak gainditzea proposatzen dizuet, hezkuntza-sistema aurreratua eta etorkizuneko sortzeko. Hezkuntza-hodeiertz berria proposatzen dizuet, non euskal gizarte anitza eta irekia gizarte aurreratu, demokratiko eta jantziaren parekide izango den.

**Paktua eta akordioa dira gizarte demokratikoaren ezaugarriak. Hezkuntzari buruzko akordio nagusia eraikitzen deitzen zaituztet guztiak.**

**Ez dut antzinako baliorik gutxiesten, baina berrikuntza eta aurrerabidea ditut jomuga.**



SAILBURUAREN KABINETEA  
GABINETE DE LA CONSEJERA

**Izan zirelako gara, baina etorkizuna da gure egitasmoaren xedea.  
Etorkizun libre eta konpartitua, denon artean eraikia.**

**Aurretiaz eskertzen dut zuen elkarlana, zeren badakit aurrean ditugun  
erronkak denon artean gaitutuko ditugula. Elkarrekin, elkarlanean,  
elkarteratuaz... osatuko dugu etorkizuna.**